

KOMUNIKAZIORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Estibaliz Ortiz Tinoco

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatua (UPV-EHU - 1996)

Prestakuntza akademikoa

Unibertsitateko ikasketetan zehar hainbat komunikabidetan praktikak egin ondoren, 1996ko ekainean, Radio Euskadiko programen sailean hasi zen lanean, non produkzio- eta esatari-lanak egin baitzituen.

Ibilbide profesionala

2006ko maiatzean, Radio Euskadiko «prime time»ko irrati-saioen arduradun izendatu zuten. Tarte horretan, albistegiak eta entzule gehien dituzten goizeko magazinak ematen dira. Modu aktiboan lagundu zuen irratirako formatu eta eduki berrien diseinuan, irrati publikoaren entzuleen kopurua modu esponenzialean hazi zen garai batean.

2008ko urtarrilean, Radio Euskadiko zuzendari izendatu zuten. Haren ardurapekoak ziren EITBko irrati horretako teknikari, administrari eta idazleen kudeaketa eta informazioa emateko eta programazioa egiteko irizpideak.

2009ko abuztuan, Grupo Noticias taldeko Radio Onda irrati zuzendaritza hartu zuen.

Estibaliz Ortizek kargua hartu bezain laster, komunikabidea erabat berritu zen, edukiei zein programei dagokienez; gainera, emanaldietarako ordutegia zabaldu egin zen, eguneko 24 orduak osatu arte, astelehenetik igandera arte, eta Herri Irratia kateko profesionalak zein irratiak hartu zituen bere barruan. Haren eskumenekoak ziren, orobat, irrati langileen kudeaketa eta finantza-planak.

Azkenik, 2015eko uztaillean, Bizkaiko Foru Aldundiko Komunikaziorako zuzendari nagusi izendatu zuten.

Beste datu interesgarri batzuk

Lehen adierazitako zuzendaritza-lanez gainera, azken urteetan, zenbait ikastaro eman ditu (prestakuntza estrategikoa, komunikabideekiko harremana eta lidergoa lantaldeetan), non ikasleekin partekatu baitu lantaldeen zuzendaritzan eta aurrekontuen kudeaketan hartutako esperientzia.